

## URBAN LUR PROIEKTUAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Urban Lur proiektuaren inguruko MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordearen 2017ko azaroaren 13ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Sustapenaren Administrazio Kontseiluak, maiatzaren 19an egindako bileran, Urban Lur proiektua Audituz-Akularren garatzeko aukera onartu zuen. Nekazaritza-ekintzailtzeko unitateak instalatzeko bost lursail aurreikusi ziren. Hasieran partzela hauek hiru urterako lagako lirateke eta gero urtebeteko luzapenak eskatzeko aukera aztertuko litzateke. Ez da aurrerapausorik eman, ordea.

Ernesto Gasco zinegotzi-ordezkariek Eguzkiza udal enpresak bere kontseiluan lurraren lagapena onartu behar zuela esan zuen batzordean eta horren zain daudela. Horretarako borondatea agertu zuen, baina ez zuen datarik eman, ordea. Eta ez dakigu Eguzkizaren kontseiluak noiz egingo duen hurrengo bilera, nahiz eta deialdia alkatearen eskumena izan.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Eneko Goia alkateari eskatzen dio Eguzkiza enpresaren kontseiluaren bilera lehenbailehen dei dezala, Audituz-Akularreko lursailen lagapena onar dezan eta, hartara, Urban Lur proiektua gara dadin.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**